DSS2016.EU

# ARDORA LAN TALDEA:

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

## 2015-05-15, MAIATZEKO SAIOAREN MEMORIA

**SAIOAREN HELBURUAK:**

- ***Apirilean jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.***
- ***Ariketa praktikoa egingo da bi dimentsioen arabera:***
  - ***2.016€ 5 diru-laguntza***
  - ***20.160€ 1 diru-laguntza***
- ***Hautatuko proiektuen onarpena.***

**PARTAIDEAK:**

***-2016 BULEGOTIK***: *Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaritza; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna.*

***-ARDORA LAN TALDEA***: *17 partaide, 6 emakumezkoak eta 11 gizonezkoak.*

***-AZTIKER IKERGUNETIK:*** *Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Susana Martinez.*

## 1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baita, eta zehazki, Energia Olatuak programara apirilean zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena bi kategorien arabera:

-20.160€ko proiektu bat
-2.016€ko 5 proiektu

Saioaren egiturari dagokionez, lehen ariketa, hots, balorazio kuantitatiboa, bi lan taldeetan egingo da. Horretarako proiektuak bi multzotan banatu direla esan da, eta partaideak ere bi azpi taldeetan banaturik proposatu dira. Zehazki, aipatzen da bi ariketa kuantitatibo egin behar direla lan talde bakoitzean (2.016/20.160 kategorien arabera), eta ordu eta erdi eskainiko zaiola lan horri. Segidan, osoko bilkuran egingo da balorazio kualitatiboa, eta horri 45 minutu eskainiko zaizkiola esan da. Eztabaida izanez gero, gehienezko ordu erdia erantsiko dela aipatu da. Beraz, aurreikusten da gehienezko 2 ordu eta erdiko lana egitea.

Jarraipen Batzordeari buruzko azalpena eta gonbidapena (2016): sarrera atala amaitu aurretik, 2016ko arduradunek azaldu dute Jarraipen Batzordea osatzeko lana egingo dela maiatzean zehar, eta horretarako aukera duela nahi duen pertsonak. Hori dela eta, gaurtik hasita, horretarako gonbidapena jasoko dute partaideek eta erantzun ahal izango dute astebeteko epean. Hartu-eman zuzena egingo da haien burua eskaintzen duten partaideekin, eta erantzun zuzena emango zaie haien burua eskaintzen duten denei. Erantzun hori partaidea hautatu eta astebeteko epean jakinaraziko zaie haien burua aurkeztu duten denei.

## 2. IRIZPIDEEN ERREPASOA

Balorazio kuantitatiboak egiteko adostutako irizpideak berriro ere kokatu dira eta errepasatu dira, fitxatan landuko diren orden berdinean:

-PARTE HARTZEA
-ANIZTASUNA
-IDENTITATEA
-PROZESUA
-LEGATUA

Horiek kokaturik, azpi taldeak banatu dira, eta bakoitzak ariketak egin ditu aipatutako bi kategorien arabera.

## 3. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Apirilean jasotako 24 proiektuen artean 5 hautatuko dira, 2.016€koak.

Martxoa eta Apirilean zehar jasotako 40 proiektuen artean, 1 hautatuko da20.160€.

Talde lanean, esleipena egiteko honako urratsak garatu dira:

- ✓ **1. URRATSA:**

  BI LAN TALDE OSATUKO DIRA LAN TALDE BAKOITZAK HONAKO LANKETA EGIN DUELARIK = **BALORAZIO KUANTITATIBOA:**

  **-2016€ko 12 proiektuen gainean**

  **-20160€ko 20 proiektuen gainean**

  PROIEKTUEN FITXA BAT BETE DU PARTAIDE BAKOITZAK (Proiektu bakoitzeko kodea eta izena zehazturik)

  Irizpide bakoitza baloratu du balio hauetakoren batekin: -1, 0, 1

  Proiektu bakoitzak, izan du emaitza kuantitatiboa, hots, puntuazio bat. Horren arabera, kategoria bakoitzeko lehen bost proiektuak eraman dira osoko bilkurara.

  Jarraian, eginiko balorazioen emaitzak azaltzen dira, A eta B LAN TALDEAK bereziturik

## A LAN TALDEAREN BALORAZIO KUANTITATIBOA

| **KODEA** | 74 | 48 | 49 | 50 | 52 | 53 | 54 | 55 | 56 | 57 | 98 | 99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | Saber, Democracia y Tolerancia | Bolígrafos 3D | Espacio "chil-out" | Mi ciudad, libro | Elkarte gastronom ikoen eguna | Donostia 2016ko pintxo ofiziala | Human opolis | Recuperaci ón de fotos antiguas | DonostiEat | Dantzara gonbidatu zaitut! | Su artifizialen inguruko liburua | Los fuegos Exposición exterior. |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | -2 | 6 | 2 | -5 | 4 | 3 | -2 | 5 | 5 | 6 | -4 | 3 |
| **ANIZTASUNA** | -3 | 3 | 1 | -5 | -3 | 0 | 0 | 2 | 1 | 7 | -4 | -2 |
| **IDENTITATEA** | -2 | 3 | 0 | -5 | 3 | 2 | -2 | 1 | -2 | 2 | 2 | 2 |
| **PROZESUA** | -5 | 6 | -3 | -6 | 1 | 2 | -3 | 1 | -1 | 3 | 0 | 0 |
| **LEGATUA** | -5 | 4 | -3 | -2 | 2 | 5 | 0 | 5 | -2 | 1 | 3 | 2 |
| **TOTALA** | -17 | 22<br>1 | -3 | -23 | 7<br>5. | 12<br>4 | -7 | 14<br>3 | 1 | 19<br>2 | -3 | 5 |

**ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

| KODEA | 75 | 76 | 78 | 80 | 81 | 82 | 88 | 90 | 91 | 92 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | HIRIpartNET, creación página web | AMARAN AUZOLAB | Batukada topaketa (20,160) | #YosoyDonostia. | Generación P: | En busca de Lear | Biblioteca y videoteca DSS2016 | Bretxa erretratuak. | "Yo Soy Woyzeck" | Instalación efímera, Urgull |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | -1 | -3 | 2 | 5 | 0 | -2 | 2 | 0 | -3 | -2 |
| **ANIZTASUNA** | -4 | -6 | 0 | 3 | 2 | -3 | 1 | 0 | -2 | -3 |
| **IDENTITATEA** | -6 | -6 | -1 | 2 | -1 | -2 | -3 | -1 | -4 | -3 |
| **PROZESUA** | -7 | -4 | -2 | 2 | 1 | -1 | 0 | -2 | -4 | -2 |
| **LEGATUA** | -3 | 1 | -1 | 5 | -3 | -4 | 1 | 2 | -4 | -5 |
| **TOTALA** | -21 | -18 | -2 | 17 (1) | -1 | -12 | 1 | -1 | -17 | -11 |

| KODEA | 41 | 58 | 59 | 60 | 61 | 62 | 65 | 69 | 71 | 74 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | Dantza jaialdi jarraia (20.160) | Pop up store | Explora DSS2016 | "ESKUALDUNOK" | Iniciativa patrimonio cultural subacuático | Micro-artea | BOTE LUZEA" pilota jokoa berreskuratzea. | Webserie de microdocumentales 2016 | Los fuegos desde todos los rincones de Donostia. 20.160 Exposición sala. | Lamiak, cortometraje |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | 5 | -1 | 4 | -1 | -2 | 1 | 3 | 4 | 2 | -3 |
| **ANIZTASUNA** | 1 | -3 | 1 | -2 | -1 | 0 | 1 | 5 | -2 | -3 |
| **IDENTITATEA** | 3 | -3 | 2 | -1 | 3 | 0 | 3 | 0 | 5 | -1 |
| **PROZESUA** | 2 | -6 | -2 | -5 | -3 | -3 | 3 | 0 | 1 | -3 |
| **LEGATUA** | 3 | -5 | -1 | -3 | 3 | -3 | 4 | 1 | 2 | -1 |
| **TOTALA** | 14 (2) | -18 | 4 | -12 | 0 | -5 | 14 (3) | 10 (4) | 8 (5) | -11 |

## B LAN TALDEAREN EMAITZA KUANTITATIBOAK

| **KODEA** | 32 | 33 | 34 | 37 | 39 | 40 | 42 | 43 | 45 | 46 | 96 | 97 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | Ur artean | Hirugarren adina aktibatuz | START, parkean | Batukada topaketa | DSSurf | Denok parkera! | Dantza jaialdi jarraia (2016) | Betiko market | "Deja tu huella" "utzi zure aztarna" | Faros radioaficionados costa vasca | Lamiak, film laburra | Su artifizialak, aretoko erakusketa |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | 5 | 5 | 6 | 5 | -5 | 7 | 6 | 3 | 7 | 5 | -4 | -3 |
| **ANIZTASUNA** | 1 | 2 | 2 | 7 | 6 | 7 | 5 | -1 | 3 | 4 | -1 | -5 |
| **IDENTITATEA** | 1 | -1 | 0 | 5 | 3 | -2 | 2 | -3 | 1 | 7 | 1 | -2 |
| **PROZESUA** | 1 | -2 | 0 | -3 | -2 | -1 | 1 | -2 | 4 | 3 | -4 | -5 |
| **LEGATUA** | 5 | 3 | 4 | 4 | 4 | 6 | 7 | 6 | 3 | 1 | 5 | 0 |
| **TOTALA** | 13 | 5 | 12 | 18 | 6 | 17 | 21 | 3 | 18 | 20 | -3 | -15 |
| | | | | 3 | | 5 | 1 | | 4 | 2 | | |

| **KODEA** | 77 | 79 | 83 | 84 | 85 | 87 | 89 | 93 | 94 | 95 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | Garbibai | La zumo-neta | La historia de un soldado | "Escenario Donostia 2016" | Lau buru | Hiri Emozioak | La brecha antzerki musikatua | El espigón de la Zurriola | Gastrolingua | Euskal folkloreko jantziak gaurkotzea |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | 7 | 2 | 4 | -1 | 2 | 5 | 0 | 7 | 3 | 5 |
| **ANIZTASUNA** | 5 | -4 | 5 | 1 | 5 | 5 | -1 | 1 | 2 | 0 |
| **IDENTITATEA** | 4 | -4 | 1 | 2 | 6 | 3 | 1 | 3 | 6 | 1 |
| **PROZESUA** | 6 | -1 | 1 | -1 | 2 | 3 | -3 | 5 | 5 | 6 |
| **LEGATUA** | 6 | -3 | 1 | 1 | 4 | 7 | 2 | 7 | 4 | 6 |
| **TOTALA** | 28 | -10 | 12 | 2 | 19 | 23 | -1 | 23 | 20 | 18 |

| **KODEA** | 44 | 51 | 63 | 64 | 66 | 67 | 68 | 70 | 72 | 73 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | Betiko market (Handi | Mi ciudad, edición e impresión | WKSP 119.104 | Pasaia bitartean | Unicon 18 | Humanopolis (20160) | Urgulleko doinuak | Plataforma"KA \| KulturaAlternatiboa" | Los fuegos Libro | Los fuegos Exposición exterior. |
| **BALORAZIOA** | | | | | | | | | | |
| **P.H.** | 4 | -5 | -1 | 4 | 7 | 1 | -1 | 5 | -5 | -4 |
| **ANIZTASUNA** | 0 | 2 | -2 | 2 | 3 | 1 | 1 | 5 | -5 | -5 |
| **IDENTITATEA** | -2 | 1 | 5 | 3 | 3 | -2 | 4 | 4 | -4 | -4 |
| **PROZESUA** | -1 | 0 | 4 | 1 | -2 | -1 | 2 | 2 | -5 | -4 |
| **LEGATUA** | 6 | 4 | -1 | 3 | -2 | 1 | 5 | 5 | 1 | 2 |
| **TOTALA** | 7 | 2 | 5 | 13 | 9 | 0 | 11 | 21 | -18 | -15 |

- ✓ **2. URRATSA:**

**BALORAZIO KUALITATIBOA: OSOKO BILKURAN**

Lan talde bakoitzak bosna proiektu eraman dituelarik, osoko bilkuran honako fitxa izan da lan gai, bertan, partaide bakoitzak gustukoenak baloratu dituelarik kategorien arabera berriro ere:

- **2016€ proiektuak esleitzeko**= 5 gometza ipini ditu nahi izan duen bezala (gehienezko 2 gometza proiektuko).
- **20160€ko proiektuak esleitzeko=** gometza bana ipini du partaide bakoitzak nahi izan duen proiektuaren gainean. Kasu honetan, bi txanda egin dira balorazio kualitatiboan:
  - 1. Txandan, gometza gorriz, partaideek hautatu dute haien gustukoa. Emaitza kuantitatiboa+kalitatiboa zalantzazkoa baloratu denez, partaideek bigarren balorazioa egin dute hiru proiektuen gainean soilik (balorazio altuena zuten hiru proiektuen artean.
  - Bigarren balorazio kualitatiboa egin da, berriro ere partaide bakoitzak hiru hautagien artean bere balorazioa adierazi duelarik gometza berdez adierazita.

**ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

**BALORAZIO KUALITATIBOAREN EMAITZAK IKUS DAITEZKE SEGIDAN:**

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.016€ | KODEA | 42 | 46 | 37 | 45 | 40 | 48 | 57 | 55 | 53 | 53 |
| | IZENA | DANTZA JAILADI JARRAIA | FAROS RADIOAFICIO COSTA VASCA | BATUKADA TOPAKETA | DEJA TU HUELLA | DENOK PARKERA | BOLIGRAFOS 3D | DANTZARA GONBIDATU ZAITUT | RECUPERACION DE FOTOS ANTIGUAS | DONOSTIA 2016 PINTXO OFIZIALA | ELKARTE GATRONOMIKO EGUNA |
| | BALORAZIOA | 21 | 20 | 18 | 18 | 17 | 22 | 19 | 14 | 12 | 7 |
| | TOTALA | 9 | 8 | 10 | 2 | 3 | 11 | 8 | 8 | 6 | 3 |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 20.160€ | KODEA | 77 | 87 | 93 | 70 | 94 | 80 | 41 | 65 | 69 | 71 |
| | IZENA | GARBI BAI | HIRI EMOZIOAK | EL ESPIGON DE LA ZURRIOLA | PLATAFORMA K.A. CONSOLODICION | GASTRO LINGUA | # YOSOYDONOSTIA | DANTZA JAIALDI JARRAIA | BOTELUZE JOKOA BERRESKURATU | WEB SERIE MICRODOCU 2016 | FUEGOS ESPOSICION SALA |
| | BALORAZIOA | 28 | 23 | 23 | 21 | 20 | 17 | 14 | 14 | 10 | 8 |
| | TOTALA | | | | | | | | | | |

✓ **EMAITZA: 5 proiektuak / 1 proiektuak**

Kategoria bakoitzeko hauek dira Ardora lan taldeak esleitu dituen apirileko proiektuak:

**2016€ko kategoriarako:**

**-DANTZA JAIALADI JARRAIA**

**-FAROS RADIOFONICOS COSTA VASCA**

**-BATUKADA TOPAKETA**

**-BOLIGRAFOS 3D**

**-DANTZARA GONBIDATU ZAITUT**

Ordezko gisa, eta baten batek berea erretiratzeko arriskuaren aurrean, bi hauek izendatzen dira:

-Recuperacion fotos antiguas

-Denok Parkera

**20160€ko kategorian honakoa da hautatu den proiektua:**

**- GARBIBAI**

## 4. BALORAZIOA:

a. Norbanakoak galdetegia bete du, aurreko saioetan egin den bezala. Horiek ustiaturik entregatuko dira bueltan hurrengo lan saioan.
b. Talde balorazioa egiteko, hiru koloretako itsas argien bidez posizionatzea eskatu zaie partaideei eta hauxe izan da emaitza:

| | |
|---|---|
|  | Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentsazio ezkorra dut. |
|  | Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentsazio epela dut. |
|  | Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentsazio onarekin noa. |

Hiru kategori horien arabera **Gehienek** hautatu dute **itsas argi berdea**=  eta horretarako honako balorazio solteak aipatu dituzte:

- ✓ Bilera ongi egon da, eta bi lan taldeetan eginik, ongi orekatua egitea lortu da
- ✓ Bilera oso ongi antolatuta eta argia izan da eta aurrekoan baina amaiera argiagoa izan da.
- ✓ Metodologiarekin ongi, baina zaindu behar da iraupena.

Pertsona batek itsas argi horia  adierazi du balorazioan, eta horretarako hauxe azaldu du:

- ✓ Ados aurreko interbentzioarekin, baina argi dago bi lan taldeetan eginik, informazioa galtzen dela, eta ondorioz, bakoitzak egiten duela bere lan taldean landutako proiektuen alde. Horrez gain, baloratzen du puntuazioa ematerakoan hainbatek ez duela egiten irizpide bakoitzaren baitan, baizik eta proiektua gustatzen bazaio puntuazio altua ematen dio eta ez bazaio gustatzen puntuazio baxua ematen dio. Horrek emaitza dudakoa egiten duela uste du. Horrez gain, eta ikusirik irizpide bakoitzaren puntuazioa ez dela erabiltzen, puntuazio totalen gainean eginik, denbora aurreztuko litzatekeela iruditzen zaio. Proposatzen du buelta bat ematea ariketaren mekanikari eta egokitzea dinamikak, bai iraupenari begira, eta ez gertatzeko amaieran pertsona erdiak gelditzen direla, eta baita desorekak saihesteari begira.

## 5. AGURRA ETA HURRENGO URRATSEN ERREPASOA

Ekaineko saioa Lan talde honen azken lan saioa izango dela aipatu da. Horren aurrean, galdetu da ea errepika ote daitekeen partaide gisan. Erantzuna izan da, momentuz behintzat, martxan dela lan talde berria izendatzeko prozedura eta lan taldea osatu denez, ezingo dela, baina hutsuneak izanez gero, edota arazorik izanez gero, prest dauden partaideei kasu egingo zaiela esan da.

**Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 22etan.**

**Donostian, 2015eko maiatzaren 15ean.**